BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

4352

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 6koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (167/2011 prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (167/2011 prozedura laburtua) aurkeztu da Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2010eko uztailaren 29ko (irailaren 3ko EHAA, 170. zk.) Ebazpenaz deitutako Ertzaintzaren Egiterapen eskalako komisario kategoriako 20 plaza betetzeko Epaimahai Kalifikatzailearen 2011ko otsailaren 28ko Akordioaren kontra. Eta, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2011ko uztailaren 6a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.